



Maila handiko 200 bat abere erakutsi dituzte Tolosan

FERIALEKUAN ▶ XXXVI.
Gipuzkoako Abelgorri
Lehiaketa izan zen atzo

SARIAK ▶ Sei arraza eta
21 maila ezberdinetako
buruek lortu zituzten ▶ 7



Atzoko lehiaketan parte hartu zuen buruetako bat. IMANOL GARCIA



Berazubiko jaietako azken eguna izango da gaurkoa, askotariko ekitaldiekin

TOLOSA ▶ Jaiez gozatzeko azken aukera izango dute herritarrek gaurkoan Berazubi auzoan. Izan ere, hainbat egunen ostean gaur emango diete amaiera auzotarrek festei. Besteak beste, toka eta paella lehiaketak izango dira eguerdi partean, eta bazkariaren ostean dantza erakusketa egingo dute. Jende andana izan da azken egunotan Berazubiko jaien baitan antolatutako dituzten ekitaldietan parte hartzen —argazkian, atzo egin zuten babarrun jatean bildu ziren 50 lagunetako batzuk—. MARTA SAN SEBASTIAN ▶ 6

TOLOSALDEA ▶

Eguneroko lanarekin berdintasuna bilatzen du Bilgune Feministak

Bertako kideekin mintzatu da HITZA ▶ 4



LANDARRI, S.L

Hilerrien ustiapena eta kudeaketa

Kanposantuko Lanak

- Ehorzketak
- Lurpetik atera
- Gerakinen lekualdatzea
- Gerakinen errausketa
- Errausketa zerbitzua
- Hilerrien proiektuak
- Hilerrien eraldaketa
- Eraikuntza ezberdinak
- Hilobi apaingintza
- Hilariak
- Panteoiak
- Hilobiak
- Estelak
- Fotozeramikak
- Estanpaziozko teknikak

Santa klara, 1 behe - 20400 Tolosa
Tel./Faxa: 943 67 01 14
Zerbitzu Iraunkorra: 610 552 552

Bidasoa kalea, 7 behe - 20100 Errenteria
Tel./Faxa: 943 34 04 67 - 943 51 31 41
Zerbitzu Iraunkorra: www.landarri.com

KOMIKIA ▶



UZTURRETIK ▶ EKAIN GARMENDIA

Eskolan irakasten diguten 'hori'



Duela urtebete-edo, alboan nuen haur bati ipuin bat kontatu zioten nire aurrean. Ipuinaren hasieran ipuineko pertso-

naietako bat hil egiten da eta, momentu hartara iristen haurra negarrez hasi zen. Negarrez, baina disimulatu nahian. Ez dakit, baina ipuin bateko pertsonaia baten heriotzak ez zuela itxura eginez, aski heldua zela frogatu nahi zuela uste dut. Beno, momentu hartan polita iruditu zitzaidan, besterik gabe.

Zoritarrez, aurrekoa be-

zalakoak gutxitan errepikatuko dira. Izan ere, gaur egun haurrei ipuin eta antzekoak erabat deskafeinatuta ematen dizkiegula usten dut. Gutxitan azaltzen dira heriotzaren parekoak ipuin, marrazki bizidun eta pelikuletan eta, agertzen direnean, erabat desdramatizatu ematen dizkiegu, pelikulako gaiztoa tiroka hiltzen dutenean bezala. Eta

hutsigite handia iruditzen zait hori. Baten batek haurrak haur direla esango dit, ez dagoela horiei errealitate irakatsi beharrik, eta istorio tristeak kontatzea haur bati alferrikako sufrimendua sortzea dela. Bale, agian hala izango da. Baina kontua zera da, joera horrek haurrak handi egindakoan ere jarraitzen duela. Komunikabide handienetatik iristen zaizkigun pelikula, programa eta antzekoetan ez dago *happy end*-a besterik, bizi-modu zoriontsua eta arrakastatsua agintzen digute horietan guztietan. Eta sinistu egiten ditugu (beraz, handitzean ere ametsetan ja-

rraitzen dugu). Halaxe hartzen ditugu gero hartzen ditugun ostiak.

Eta hau guztia zertara datorren? Mafaldaren tira bat irakurri berri dudalako, Argentinan estatu kolpe bat jo eta hurrengo egunean argitaratu zena. Tira biñeta bakarrekoa da, eta bertan Mafaldaren aurpegia agertzen da soilik, begitarte urduririk. Bokadilo bakarra: "Eta orduan, eskolan irakatsi ziguten hori?". Eta jarraian jada hain ume ez garenon aurpegia imajinatu dut, geure buruari «eta orduan, ipuinetan irakatsi ziguten hori?» galdezka. Besterik ez.

Tolosako Udala
IRAGARKIA

XEDEA: 32 garajeen alokairua konpartitua turnotan (Emeterio Arrese 2an). Tolosako biztanlentzat eta Tolosan lana egiten dutenentzat.

Proposamen aurkezteko azken eguna: 2005eko azaroaren 10ean

Prezioa: 68,16 euro + BEZa hileko

Konzesioaren iraupena: Urte betekoa, eta beste hiru urtez luzatu ahal izango da.

Argibideak: Baldintzak interesatuen eskura daude Udaletxeko informazio bullegoan eta Web orrian tolosakoudala.net

Tolosan, 2005eko urriaren 10ean
ALKATEA

iragarki laburrak ▶

LANA
Langilea. Iturgintza, berokuntza eta gas lanetarako langilea behar da.
Telefona: 656 416 808.
Soldatzailea. Soldatzailea, planoen interpretazioarekin, Adunarako. 30 urte azpitik. 685 758 093.
Elektrizista. Tolosa inguruan mantenimendu lanetarako esperientzia duen elektrikista bat behar da. 184 posta. Villabona.
Zerbitzaria. Asteburuetarako

zerbitzaria behar da Tolosan. 635 700 559.

SALGAI
Pisua. Villabonan pisu berritua salgai. 2 logela. Guztia kanpoaldera. Berokuntza. 655 737 629.

EROSTEKO
Saxofoia. Saxofoi alto bat erosiko nuke. Yamaha etekoa. 685 78 36 65.

Lardi auzoa, Zubi txiki industr.
20150 ADUNA
Tel. 943 69 68 64
Faxa: 943 69 68 47

bibitegia

Zumeta

GUTUN@K ▶

Obabako
aitona Joxe

Aitona Joxe Obaban bizi da. Go-goan dut txikitzen nola kontatzen zizkidan istorioak, Euskal Herrikoak batez ere. Gehien gustatzen zitzaizkidanak Bernardo Atxagaren *Obaba* liburuenak ziren. Istoriorik kuttunenak baldin banituen, ez zen istorio apartak edo besteak baino liluragarriagoak izateagatik, baizik eta kontatzean aitonen grina eta ha-

rrotasun pittin hori sumatzen nituelako.

Obaba liburua argitaratu zutenean, aitona oso pozik zegoen. Euskal Herri osoan Obaba herria non zegoen jakingo zutelako, eta berarentzat oso garrantzitsua zen herri txiki hura ezagutaraztea, bere ezaugarri guztiak. Gero liburuen itzulpenak etorri ziren, ez dakit zenbat hizkuntzataraz itzuli zuten, eta orduan ere aitona Joxe poztu zen eta harro sentitu zen. Mundu osoan zehar Obaba herria, hizkuntza eta

nortasuna ezagutarazteko aukeratzat jotzen zuelako.

Duela hilabete batzuk, aitona eta biok, ETBko *Bertatik bertara* saioa ikusten ari ginela, *Obaba* liburua film bihurtu zutela jakin genuen, eta filmaren zati bat ikusteko aukera izan genuen. Bat-batean, aitona galdetu zidan: «Nola da posible gure Obabari buruzko film bat erdara hutsean filmatzea? Zergatik ez dute gure hizkuntzan filmatu, liburuen jatorrizko hizkuntza gurea izanda?». Nik, oso triste zegoela

ikustean, adierazi nion gaur egun zer-nolako zailtasunak dauden gurea bezalako hizkuntza gutxituan film bat aurrera ateratzeko, diru asko lortu behar dela, gero errentagarria izan behar duela eta abar... Baina aitona ez du ulertzen eta ez du ulertu nahi errentagarritasunaz ezta diruaren kontuez ere. Bere bizitza bihotzak soilik gidatzen du, eta bere bihotzari herriak eta hizkuntzak taupadak ematen dizkiote.

Obaba filma Donostiako Zine-

maldian aurkeztu zuten, bai, baina aitona orduko ez zen ez harro ez pozik sentitu. Orain dela gutxi jakin du Ameriketako Oscarretarako Espainiako ordezkaria *Obaba* filma izango dela, eta, saminduta, bakarrik hau esateko izan da gai: «Filmaren izena aldatuko baliote, behintzat... Hori ez da gure herria, gure herriaren nortasunaren ezaugarririk esanguratsua galduta egin baitu, hizkuntza, alegia».

ANE E. LOPEZ DE ALDA ▶ PASAIA

IRITZIA ▶ IBAN ARREGI (BERTAKO HEDABIDEETAKO ARDURADUNA)

Euskarazko prentsako sektorearen eskaera

Euskarazko prentsaren sektoreak eskaera garbia egin dio Eusko Jaurlaritzari, lehengo astelehenean Donostian egindako agerraldiaren bidez —eskaeraren egileen artean dira HITZA denak—: batetik, 2006rako euskarazko prentsarentzat Eusko Jaurlaritzako aurrekontuetan milioi bat euroko hazkundea izatea, eta, bestetik, diru laguntzen zenbatekoa urtearen lehen sei hilabeteoan jakin eta ordaintzeko modua egitea.

Izan ere, Jaurlaritzaren Kultura Sailaren aurrekontuetan 2000tik 2005a arte ez da atal horretan hazkunderik izan, nahiz eta euskarazko prentsan aurrerapausoak eta proiektu berriak sortu diren azken bost urteotan. Horra hor *Berria*ren sorrera eta honek *Egunkaria*-rekiko izan duen hazkundera, hor astegunkariaren sorrera, eta hor *HITZA* proiektuaren sorrera eta honek gaur egun daukan dimentsioa.

Hain zuzen, gaur sei *HITZA* daude: Tolosaldean eta Leitzaldean, Oarsoaldean, Lea-Artibai eta Mutriku, Urola Kostan, Goierrin eta Donostian. Kontuak kontu, *HITZA* denek egunero ia 50.000 ale banatzen dituzte, 52 orrialde dauzkate, hamar egoitza, bost webgune, aldizkari bat, Hitzetako erredakzioan 60 bat langile daude, bestela beste 140 bat (banatzaileak, komertzialak), Hitzek aste osoa okupatzen dute, urte osoa, hainbat kanpo zerbitzu erabiltzen dituzte... Eta abenduan, zazpigarren *HITZA* sortuko da: Busturialdean.

Beraz, azkenaldian euskarazko prentsak eman dituen aurrerapausoekin,

esan dezakegu: sektorea, proiektu eta produktu aldetik, behin ere baino indartsuago dago.

Baina indartsuago egon behar du, euskaldunontzat komunikabide erreferentzialak euskarazkoak izateko eta komunikabideok geure hizkuntzaren normalizazioan eraginkoragoak izateko. Horretarako, jakina, sektoreko enpresa edo elkarte bakoitzak kalitateko zerbitzua eman behar die euskaldunei, eta diru iturriak handitu egin behar ditu (publizitatearen eta harpidetza bidez). Baina gaur egun, oraindik, erakunde publikoen erantzukizuna ere erabakigarria da.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) 1998an onartu zuten Gasteizko Legebiltzarrean, eta planaren «helburu nagusia, euskaraz bizi nahi duten herriarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea da. Eus-

kal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea».

Eta komunikabideen alorrari, teoriar, garrantzi handia ematen dio EBPNk: «Komunikabideen garrantzia gero eta handiagoa denez, euskarazko komunikabideak hizkuntza-normalizazioaren arlo estrategikotzat jo behar ditu administrazioak». EBPNren hirugarren ardatz estrategikoak dio euskarazko komunikabideek «lehentasun altua» dutela eta (toki mailako euskarazko komunikabideak sustatu eta landu) egin behar direla.

1998tik euskarazko prentsak aurrera egin du, batik bat toki mailakoak, baina 2000tik Kultura Sailean sektoreko aurrekontua ez da igo. Kultura Saila ez da errealtate berrira egokitu; ez du pausoa eman aurrera. Segitu du diru laguntzak ematen —haien artean, *HITZA* bakoitzari—, baina diru poltsa handitu gabe eta

dirua elkarte gehiagoren artean banatuta.

EBPNk berak 1998an zioen «euskarazko prentsa erdarazkoaren mende-koa» dela. Egoera hori aldatzen ari da, gure ustez batez ere tokiko egunkariak dauden lekuetan, baina oro har jauzia ematen hasi nahi bada, ezinbestekoa da erakunde publikoek sektore hau beneran estrategikotzat jotzea.

Gainera, euskarazko prentsak lehen diru askorik ez eta beti, gainera, itolarria izan ohi du bere ordainketak egin ahal izateko ere. Besteak beste, Eusko Jaurlaritzak diru laguntzatan asko atzeratzen delako. Urtearen hamargarren hilabetean gaude eta euskarazko komunikabideek oraindik ez dakite zenbateko laguntza emango dien Jaurlaritzak, ezta noiz jasoko duten ere. Urteroko kontua da hori. EAEko 2005eko diru laguntza deialdia maiatzean egin zuen Jaurlaritzak, enpresak eta elkarteak hilabete epea eduku zuten proiektuak aurkezteko, baina oraindik ez dakite euren egitasmoak diruz lagunduko dituzten, ezta zenbat eta noiz jasoko duten ere.

Jaurlaritzaren laguntzak garrantzitsuak izan ohi dira Hitzetan ere (aurrekontuaren %8-10), baina beranduegi iristen dira. Eta horrek arazoak sortzen dizkie euskarazko prentsakoei: maileguak eskatu behar, dirua aurreratu, ezin inbertsiorik egin, gastuei aurre egin behar (soldatak, inprimategia, banaketa...) eta abar.

Euskarazko prentsak ezin du beti horrela bizi. Horregatik eskatu dio Eusko Jaurlaritzari gehiago inplikatzeko.

Oharra: Bertako Hedabideak enpresa, *HITZA* guztiaren bazkide da.



Astelehenean egin zuten agerraldia euskarazko prentsako kideek Donostian. *HITZA*

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000 etxetara

HITZA guztiaren prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95

tolasaldean @tolosaldeko hitza.info

urteurrenak ▶



XVII. urteurrena
**Kontxita
Zabala
Igarzaburu**
1917-III-22
1988-X-16

II. urteurrena
**Esteban
Malbadi
Olano**
1944-VIII-03
2003-X-16

Bizitza, agian,
amaitzen den gauza bat izango da,
baina maitasuna
inoiz amaitzen ez den sentimena da.

TOLOSA, 2005eko urriaren 16a



GIZARTEA ▶

Bilgune Feminista: eguneroko lanaz, berdintasuna lortzen

Euskal Herri independente, sozialista eta feminista lortzea dute jomuga nagusia



Arraun egiten pasa zenean eskualdeko emakumeek parte hartu zuten Emakumeen Mundu Martxa-n. HITZA

OIHANA LOPETEGI ▶ BILGUNE FEMINISTAKO KIDEA

«Feminismoaren alde lan egin ezean, ez dugu berdintasuna lortuko»

Bilgune Feministako kidea da Oihana Lopetegi ibartarra. Eskualde mailan aritzen da lanean batik bat. Epe motzeko helburu batzuk lortuak dituztela adierazi duen arren, epe luze-koak oraindik lortzeke daudela garbi utzi du. Guztiaren gakoa, gizonezkoak eta emakumezkoak maila berean dauden gizar- te berri bat sortzean dagoela esan du.

Bilgune Feminista sortu zene-ko helburuekin jarraitzen al duzue?

Helburu horiekin jarraitzen dugu, bai. Gizartearen aldaketa nabaritzen ari den arren,

oraindik lan handia baitago egiteke.

Emakume Ezkertiar eta Aber- tzaleen III. Topaketa iristear dago. Zein asmo dituzue?

Abenduaren 17ko topaketan Euskal Herriko gatazka politi- koa izango dugu mintzagai. Horretarako, gaiaren gainean lanean diharduten taldeetako ordazkarietara bilduko gara. Egun osoko topaketa da eta hitzaldiak, mahainguruak, lantegi- ak... izango dira.

Emakumeen Mundu Martxa- ren zer balorazio egiten du- zue?

Oso ona. Kontuan izan behar



Oihana Lopetegi ibartarra. HITZA

da ez dela zerbait sinbolikoa izan; etorkizunerako proiektu asko sortu baitira martxa honen ildotik. 2002an beste Mundu Martxa bat egin zen baina ez zuen aurtengoak bezain- beste oihartzunik izan. **Ba al duzue harremanik mundu-ko gainontzeko erakunde feministekin?**

NEREA LIZARTZA

«Gizarte matxista batean bizi gara oraindik» aitortu du Bilgune Feministako kide batek. Egoera horrekin amaitzeko eta beste proiektu batzuk plazaratzeko ari dira lanean erakunde-ko kideak. Emakumeen esku- bideak gizar- teko sektore guz- tietan bermatzeko sortu zen 2002an Bilgune Feminista. Urte horretan egin zuten Euskal Herriko Emakume Abertzale Eta Ezkertiarren Topaketan, hemengo egoeraren gaineko diagnosi bat egin zuten; ordu-ko egitura aldatu, eta feminis- moaren beharra somatu zuten. Bestalde, une berean, histori- koki ere aldarrikapenak egiten hasi ziren euskal gizar- tean, orokorrean, *berdintasunaren sindromea* delakoa sortu bai- tzen. Hastapen horietatik, bu- ru-belarri dihardute Bilgune feministakoek Euskal Herri in- dependiente, sozialista eta fe- minista lortzeko jomugarekin.

Ezarriak dituzten helburuak lortzeko, sare bitartez funtzio- natzea dute xede; horretarako bi sare mota osatu dituzte, bata sare hurbila eta bestea, berriz, sare zabala. Sare hurbilean dauden kideak ez dira Bilgune Feministakoak; Euskal Herriko

talde iraunkorretan dauden emakumeak dira, hala nola presoen aldeko plataformetan daudenak, gaztetxeen alde la- nean ari direnak... Haatik, Bilgune Feminista emakume ho- riekin harremanetan jartzen da eta horiek guztiek euren tal- deetan eta egunerokotasune- an, feminismoaren ikuspuntu- tik lan egiten dutela bermatze- ko ardura hartzen dute beren gain. Bestalde, sare zabalar- i dagokionez, hemen daudenak militanteak dira, sarekideak, eta, ondorioz, edozein egoe- ren aurrean gainontzeko sare- kideekin etengabeko kontak- tuan egoteko ardura dute. Guz- tien lana sarearen edota beste- lako harremanen bitartez fe- minismoari bultzada ematea da, helburu gorena hori lortzeko.

Aipatutakoaz gain, Bilgune Feministak hainbat sektore ditu, hala nola hezkuntzarena, kulturarena —honen barnean kirolak sartzen dira— komu- nikabideena eta sozio-ekonomi- koa. Horieta guztietan hain- bat proiektu ditu erakunde ho- nek, eta guztietan emakumeen ikuspuntua eta partaidetza bermatzea dute xede nagusia.

Emakumeen Mundu Martxa

Martxoaren 8an Brasildik abia- tu, eta maiatzaren 26an zapal- du zuen Euskal Herria jende artean Emakumeen Mundu Martxak. Nazio bezala hartu du parte Euskal Herriak; hori ere ilusioz hartu dute eskualdeko antolatzaileek. Bilgune Fe- ministarentzat «oso positiboa» izan da martxa; «ez da zerbait sinbolikoa izan, proiektu asko sortu baitira martxa honen ildotik». Hilaren 17an amaituko da martxa Afrikan. Hala ere, Euskal Herrian amaiera ospa- tzeko, egun osoan zehar ekital- diak antolatuta dituzte; orduka egin dute egunaren banaketa, eta 12:00etatik 13:00etara izango dira Tolosakoak.

Martxaz gain, Munduko Ema- kumeen Humanitaterako Karta ere pasatu da nazioz nazio; ez da betearazlea, bost kontinen- teetako emakumeen iritzien eta bizipenen isla da. Hala ere, proiektu bat sortu berri dute Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxako plataforma- koek. Bertako kideek adierazi dutenez «hiru aldiz zapalduak sentitzen gara; euskaldunak, langileak eta emakumeak ga- relako». Ondorioz, egoerarekin amaitzeko, eskubide karta sor- tzeko lanean dabilta. Emaku- meek sustatutako karta bat izango da, ahalik eta emakume gehieneko egoerak idatziz jasoko dituen. Martxoaren 8rako amaituta egotea espero dute; hau betearazlea izango da.

Bai. Harreman gehienak Mun- du Martxaren ondorioz sortu dira. Oso aberasgarria da mun- duaren bestaldean bizi diren emakumeekin bizipenak kon- partitzea. Atentzioa ematen die guztiei Euskal Herriko Bilgune Feministan oso militante gazte- ak egoteak.

Zein garrantzia du martxo-aren 8ak gure egutegian?

Urte osoko aldarrikapen isilik plazaratzeko eguna da. Ospa- tzeko baino gehiago, aldarrika- penak egiteko da egun hori, emakumeon ahotsak txoko guztietan oihartzuna izan de- zan.

Oraindik gizar- te matxista ba- tean al gaudu?

Bai. Aurrerapausoak egon dira, baina oraindik ez dago pareko- tasunik gizon eta emakumeen artean. Guk gizar- te berri bat sortu nahi dugu, non emaku- mezkoak eta gizonezkoak mai- la berean egongo diren. ◀

TOLOSA ▶ POLITIKA



Txalaparta jo ondoren, dantzariak aureskua dantzatu zuen Benta-Haundin. IMANOL OTEGI/ARGAZKI PRESS

Lasari eta Zabalarri omenaldia egin diete

22 urte beteko dira gaur tolosar gazteak bahitu, torturatu eta hil zituztela; Benta-Haundin omendu zituzten herenegun

MARTA SAN SEBASTIAN

Joxean Lasa eta Joxi Zabala tolosar gazteak GAL-en eskutan bahitu, torturatu eta hil zituztela 22 urte beteko dira gaur. Hori dela eta, 70 lagun inguru bildu ziren ostiralean Benta-Haundin omenaldia egiteko asmoz.

Bertan, bi tolosarren omenean dagoen oroitarrian ikurrina jarri zuten eta Lasa eta Zabalarren amek lore eskaintza egin zuten. Ondoren, txalaparta jo zuten eta aureskua ere dantzatu zuen dantzariak. Ekitaldiari amaiera emateko herri-tar batek hitz batzuk egin zituen. Egungo bake prozesuaren inguruan mintzatu zen eta orain arte borrokan aritu diren merezimendua goraiatu zuen. «Euskal gatazkaren ondorioz erori diren beste haibat borrokalarri» ere gogoan izan zituzten. Amaitzeko, *Eusko Gudariak* abestu zuten.



Lore eskaintza egin zuten oroitarrian. M. SAN SEBASTIAN

ILUSIO Kreditua | EUSKADIKO KUTXA



Adituak zure nahiak betetzen

Nahiren bat baldin baduzu bete ezazu gure **Ilusioen Sailean**

% **Setik beherako** mailegu pertsonal batekin.

KREDITU ILUSIOA ESKAINTZA		
Epea	Interes nominala	%4,96 U.T.B. <small>Irekiera-komisioa: %1 Komisioa aldeaz aurretik amortizatzeagatik: %0 Komisioa aldeaz aurretik kitatzeagatik: %0 Gutxieneko zenbatekoa: 9.000€</small>
1 urte:	%2,98	
3 urte:	%4,19	
5 urte:	%4,44	
7 urte:	%4,55	

BBE n.º 3651/05

Eskaintza hori lortzeko ezinbestekoa da Nomina helbideratzea eta Euskadiko Kutxaren bizitza-aseguru bat kontratatuta edukitzea, eta bere Aurrezpen, Aurreikuspen edo Pentsio Planetako beste produktuaren bat.

05-10-15etik aurrera egindako eragiketarako eskaintza, 10 milioi eurora iritsi arte. Berrito finantzatzeko eragiketarako alde batera utzita.

HAUEK EZ DIRA 'KLASE PARTIKULARRAK'

Ez. Kurtso osoko **jarraipen** bat da:
gai guztiak, gurasoekin harreman zuzenak (behar bada tutorearekin)...

Ezinezkoa da iragarki batetan hau dena azaldu.

Deitu eta hitzegingo dugu  **943 65 23 72**

AZOKA ▶

Udazkenarekin batera, basoko produktuak nagusi atzo

Onttoak, ziza horiak, gorringoak eta gibelurdin oso azkar saldu ziren

PABLO ALBERDI

Eguraldi ona zela eta, jende asko hurbildu zen Tolosako merkatuetako postuetara. Udazkenean bete-bete gauden honetan, basoko produktuak izan ziren nagusi postuak kolorez hornituz.

Eskaintza mikologikoa oparoa izan zen, aurreko asteetan bazala. Hala, 250 gr. ontto, 60 gr. gibelurdin, 15 gr. gorringo eta 25 gr. ziza hori berehala saldu ziren postuetan. Gaztainek, mizpirek, urrek, intxaurrek eta matxakanek gure basoen usain gerturatu ziguten. Infusio-etarako kamamila eta ezkia ere ikus zitezkeen. 60 uso inguru ere eskaintzen ziren, 5 eurotan bakoitza; aurreko asteetan baina merkeago, alegia.

ATZOKO AZOKA ▶

Berdura Plaza

	merk.	gares.
Zintziliko potoa	2,40	6,00
Pensamientoa	1,00	-
Erromeroa	4,00	6,00
Txinar krabelina	2,50	-
Antirioa	1,00	-
Siemprevivas	6,00	-
Gerbera	12,00	-
Salbia	1,00	1,20
Krisantenoa	4,00	8,00

Berteko produktuak

Uxoa	5,00	6,00
Indioilarra	4,30	-
Ahatea	2,50	-
Antzarra	11,00	12,00
Onttoa	10,00	22,00
Ziza horia	15,00	18,00
Antzarra	11,00	12,00
Gaztaina	2,00	2,50
Urta	2,00	-

Produktu ekologikoak

Sagarra	2,00	3,00
Intxaurrea	4,00	6,00
Kalabaza	1,60	3,04
Baraturia	1,60	6,00
Azenarioa	2,00	2,50
Dilistak	2,40	-
Txibirioak	2,40	-
Arroza	1,90	2,00
Arbi morea	4,00	-
Tipula	1,75	2,00
Zerba	2,00	-
Erremolaba	1,60	-

JAIK ▶

Jairako azken eguna dute gaur Berazubín

Jende andana bildu zen atzo gauean plazako giroan; gaur toka eta paella lehiaketa eta dantza erakusketa izango dira

MARTA SAN SEBASTIAN

Jaietz gozatzeko azken eguna besterik ez zaie geratzen Berazubiko auzotarrei. Hala ere, dirudenez, tristatzeko aitzakia nahiko ez da izan eta giroa ez da faltatu asteburu osoan zehar. Atzo, esaterako, egun handienetakoa izan zuten, ekitaldiz betetako jai eguna.

Goizetik atera ziren auzotarrak kalera eta 11:30ean 3x3 futbito txapelketan gaztetxo askok parte hartu zuten. Ondoren, jai giroak bazkalorduan izan zuen jarraipena. Berazubiko elkarteko kideek bazkari ederra prestatu zuten elkartean; babarrun jatea egin zuten. 50 bizilagun inguru biltzea lortu zuten plazan. Sabela ondo bete ostean, auzoko 66 eta Ordizia tabernetan mus azkara deituriko txapelketa jokatzera animatu ziren asko izan ziren. Helduenek mus jokoan, eta txikiak jolasean. Izan ere, 16:00etan haurrentzako askotariko jolasak antolatu zituz-

EGITARAUA ▶ GAUR

09:00. Tolosaldeko Txistulari bandaren aldetik, goiz eresia.
12:00. Toka lehiaketa eskualdeko gizonen artean. Auzoko plazan izango da.
13:00. Paella lehiaketa.
14:00. Bazkaria paella lehiaketan parte hartu dutenentzat. Ondoren, sarien banaketa egingo dute.
19:00. Dantza erakusketa.

ten, txikiak ere festaz gozatu nahi zuten eta.

Arratsaldean kirolari ekin zioten auzotarrek eta kiroldegian futbol partidua jokatu zuten auzoko gazteek zaharren aurka. Partidaren ostean buruhandiak ibili ziren kaleetan barrena, umeek eta gaztetxoek goza zezaten. Larunbat gaua indartsua izan zen Berazubín.

Tolosa 750 Fundazioak antolatuta, Ken7 eta Muchachito Bombo Infierno taldeek zezenplazan kontzertu handia eskaini zuten. Ondoren, gautxorien txanda iritsi zen. Berazubiko plazan DJ-ak dantza giroa eraman zuen auzora eta dantzari asko ikusi ahal izan zen plazan. Gaur izango dute Berazubiko jaien azken eguna.



Gau giro handia izan da asteburuan zehar auzoan. M. SAN SEBASTIAN



Auzoko gazteak futbitoan aritu ziren atzokoan. M. SAN SEBASTIAN



50 bizilagun inguru bildu ziren plazan atzoko babarrun jatean. MARTA SAN SEBASTIAN

GIZARTEA ▶

Emakumeen Mundu Martxarako deialdia

M. SAN SEBASTIAN

Emakumeen Mundu Martxarako Plataformak elkarretaratzeko deialdia egin du. Bihar, astelehena, 19:30ean Trianguloan biltzeko deialdia luzatu dute, hain zuzen ere. Kontzentrazio horrek bi helburu nagusi izango ditu. Alde batetik, aste honetan izandako Barakaldoko emakumearen hilketa salatzea eta bestetik, Emakumeen Mundu Martxaren amaiera. Burkina Fassora (Afrika) iritsiko da mundu osoan zehar ibili den Emakume Martxa gaur, eta bertan emango diote bukaera.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun zentroa: 6533212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun zentroa: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdiak: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerbitzu: 693930
- ▶ **Garraioak.**
 - ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leiztaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- ▶ **Besterik.**
 - ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

GIPUZKOAKO XXXVI. ABELGORRI LEHIAKETA ▶



Abelgorri ugari eta adin ezberdinetakoak ikusteko parada izan zen atzokoan. I. GARCIA



Ganaduzaleek, gainera, beraien artean iritziak trukatzeko aukera izan zuten. I. GARCIA

Maila handiko abereak

200 bat buru erakutsi eta 21 mailatan sariak banatu zituzten atzoko lehiaketan

IMANOL GARCIA

Gipuzkoako abelgorrien hiri-buru bihurtu zen atzo Tolosa. 200 buru inguru erakutsi zituzten Ferialekuan, sei arraza ezberdinetakoak: suitza, frisoia, pirenaika, blonda, limousina eta txarolesa. Ganaduzale eta kurioso ugari izan ziren abelgorriei begira. Izan ere, Gipuzkoako abelgorri onenak ikusteko aukera zegoen eta aipatzekoa abereak emandako maila. Josu Payas haragi-behien lehiaketako epaile lanetan aritu zen eta berak zioenez, «baserritarrek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak egiten duten lana harritzekoa da. Oso maila handiko abereak daude hemen, eta ez soilik banakakoak, baizik eta lehiaketan parte hartzen ari diren lote guztiak. Oso zaila da epaia ematea eta azkenean xehetasun txiki batzuek erabakitzen da irabazlea».

Lehiaketaren antolaketan zebilen Foru Aldundiko Juan Ramon Ibarbia albaitaria iritzi berekoa zen: «Ez daukate zerikusirik orain dela hamar urteko animaliek gaur egungoekin. Produkzio mailan, esaterako, txapelketaren hasieratik hirukoitzu egin da. Noski, elikadura hobetu da, genetika ere bai, eta gero baserritarren profesionaltasunak eta maneiatzeko modua asko hobetu da. Haragi arrazatan ere asko hobetu da, baina aurten ikusten ari naiz aspaldiko lehiaketarik politenak».

Txarolesa arrazakoak ez beste guztiak hartu dute parte lehiaketan eta guztira 21 mailatan banatu dira sariak. Horieta batak lortu ditu Alegiako Gorotzenea baserriko Lorenzo Iturriozek bere suitza arrazako behiekin, tartean lehenengo saria lau urte baino zaharragotik abereetan. «Hirugarren ur-



Frisoi arrazako behi bati esnea ateratzen, atzo, Ferialekuan. I. GARCIA

tea daramat hona etortzen eta ez nuen espero hainbeste sari lortzea». Lehiaketara behiak eramateak bere lanak ditu: «Hobeto mantendu behar dituzu eta hemengo ibilbidea egiteko sokarekin hezi behar dituzu».

Errapeak hustu beharra

Frisoi arrazako behiei normalean hamabi orduz behin esnea ateratzen zaie. Baina txapelketarako prestatzen direnean, aurreko egunean ez dizkiete errapeak husten, beren itxura hobereana eman dezaten. Horregatik, eta lehiaketan parte hartu ondoren, jabeek behiak Westfalia etxeak esnea ateratzeko zeukan zerbitzura eramaten zituzten, abereak gelditu zitezten.

Atzoko beste ekitaldia abelgorrien enkantea izan zen. Gustura zeuden antolatzaileak emaitzekin, enkantean jarritako buru guztiak saldu zirelako, bat izan ezik. Behiak soberan dituztenek edo saldu nahi dutenek eramaten dituzte enkatera, erosleak diru laguntza izaten duen aberea lortzeko.

hitza

lagunen
txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo,11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

ILEAPAINJEGIA
honekin

TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak

San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR

Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero



Harpidedunei banatua ▶ 2005eko urriaren 16a, igandea ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

19

hotzena

14

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alto. Jubilatuen Eguna: meza nagusia, dantzariak, pilota partidua, bertsolari saioa eta bazkaria Arandian.
Amezketak. EHNA tramitazeko aukera udalebtean.
Zizurkil. Elizpe jubilatuek elkarteak antolatuta, Irabxera irteera hilaren 28an: Lizarrako museoa, bazkaria hotelean, ondoren bingo, opariak eta dantzaldia. Izen-ematea, 19an, 20ean eta 21ean elkartean 17:00etatik 19:00etara 20 eurotan.

JAIAK

Tolosa. Berazubiko jaiak: Udal Txistulari Bandaren goiz eresia 09:00etan; toka lehiaketa 12:00etan; paella lehiaketa 13:00etan; bazkaria eta sari banaketa 14:30ean eta dantza erakusketa 19:00etan.

KULTUR ASTEA

Tolosa. San Estebanen: Bihar, 19:30ean, hitzaldia alkatearekin *Auzoari gerora begirada* izenburupean.

ZINEMA

Villabona. *Robots* filma, gaztelaniaz, Gurea zineman 17:00etan. Sarrera 2,5 euro.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Tolosa. Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

Bihar
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Ebebeste, J.M. Gernikako Arbola, 3. 943 65 10 40.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Barneak margotzen duenean

LARRAUL ▶ 'Zen' margolanen erakusketa ipini duela aprobetxatuz, teknika horren tailerra eskaini zuen atzo Herriko Ostatuan Laura San Juanek



Tailerrean parte hartu zuten batzuk margotzen. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Laura San Juanek zen margolanen erakusketa ipini du Larraulgo Herriko Ostatuan. Eta horrekin batera, atzo arratsaldean margoketa berezi horri buruzko tailerra eman zuen bertan. Haur zein heldu hurbildu ziren, horrelako margo teknikarekin tentatuta. Lehenengo egin beharrekoa tinta egitea izan zen. Beraz, tinta gogorra egoten da eta harri baten gainean igurtzi behar da, birak emanez, likido bihurtzeko. Ekintzak, gainera, erlaxatzeko balio du, gero margo-

tzeko behar den barne-egoera lortzen joateko.

Ondoren margoketa etorri zen. Lehenengo pausoa pintzela nola eutsi ikastea da. Txirula baten moduan hartu behar da, behatz potoloa alde batean eta beste laurak pintzelaren bestaldean. Denbora guztian pintzelak zuzen egon behar du, bertikaltasunean. Bigarren pausoa arnasa da. Arnasak eta zertzaladek batera joan behar dute: margotzean arnasa bota behar da, pintzela airean denetan, berriz, arnasa hartu. Hortik aurrera, bakoitzaren barneak mugitzen du pintzela.

AGURRAK ▶



ZORIONAK
Josepa Galarza Goñi (Amezketak).
Bihar 98 urte. Jarrai dezazula orain bezain alai eta bizkor.



URTE ASKOAN
Markel Urrestarazu Insausti (Irura).
Urte bat betetzean, anaia Julen, aita, ama eta aitona-amona.



URTE ASKOAN
Hasier Zaldúa.
Gaur 3 urte.
Zorionak familiaren partetik.



URTE ASKOAN
Zorionak.
Etxeko guztien partetik.

HITZA,
zorion agurren tartea

Mesedez,
argazkia bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea
TOLOSA
Udaletxeko bulegoa
LEITZA

FotoDepilazioa

Urriako promozioa:
5+1 Bonoa
Aurpegia (1 mod.): 39€
Ingleak (3 mod.): 99€
Axilak (2 mod.): 66€

SHUYANA EDERGINTZA
Eskolapietako Lorategiak, 4. 20400 TOLOSA.
TEL. 943 67 54 89

Zure azalaren Depitotal leunetasuna gozatu